

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua behar bezala aurrera eramateko, funtsezkoa da hainbat eragile eta sozietaterekin elkarlanean aritzea. Horrek gure zerbitzuak modu egokian gauzatzea eta helburu nagusiak betetzea bermatuko du. Ondoren, gure jarduera esparru bakoitzean izango ditugun bazkide eta eragile nagusiak aurkezten ditugu:

Animalien babeserako elkarteekin harremanetan jartzea ezinbestekoa izango da, batez ere, udan abandonatutako animalien datuak eskuratzeko. Gure helburua abandonu horiek murriztea eta animalia horientzako irtenbide egokiak eskaintzea da. Elkarte hauek esperientzia eta datu zehatzak emango dizkigute, gure lana eraginkorragoa izan dadin.

Gure aplikazioa modu eraginkorrean funtzionatzeko, informatika-talde bat izango dugu. Talde honek aplikazioaren eguneraketak egingo ditu berrikuntzak gehitzeko eta sistema seguru mantentzeko. Gainera, birusen edo hackeen aurkako babesa bermatuko dute, gure erabiltzaileei segurtasun osoa eskaintzeko.

Bidaiak antolatzeko, bidai agentziekin elkarlanean jardungo dugu. Hauek tramite eta antolakuntza lanetan lagunduko digute, gure zerbitzuak erabiltzaileentzat eroso eta erraz egiteko. Horrela, maskoten zaintzaren eta bidaiarien beharren arteko oreka mantenduko dugu.

Etxebizitzak utziko dituzten pertsonak bilatzea ere gure proiektuaren beste atal garrantzitsu bat da. Horri esker, maskotak zaintzeko prest dauden bezeroen eta etxebizitza beharrea dauden pertsonen arteko trukeak antolatuko ditugu. Hornitzaileekin harreman iraunkorra izatea ezinbestekoa izango da trukeak modu egokian bideratzeko.

Gure publizitatea zabaltzea eta ezagutaraztea beste helburu nagusi bat izango da. Horretarako, publizitate-agentziekin eta diseinatzaileekin lan egingo dugu. Kartelak sortzeaz eta komunikabideetan gure zerbitzua sustatzeaz arduratuko dira, publiko zabalago batengana iristeko eta gure ikusgarritasuna handitzeko.